

Donostiako hainbat auzo elkarte eta herri mugimendu hiri-eredua aldatzeko elkarlanean ari dira eta ekainaren 18an manifestazioa deitu dute:

Donostiako hainbat auzo elkarte eta herri mugimenduak elkarlanean ari dira **hiri eredua aldatzeko** behar larriaren aurrean. Helburu horrekin aldarrikapen partekatuak egiteko ekimenak martxan jarriko dituzte. Donostiar gero eta gehiagoren sentipena argia da: hiria ez da bizilagunen beharren arabera aldatzen ari eta **botere publikoek hiria herritarrentzat pentsatzeari eta horren arabera jarduteari utzi diote**, administratzaile eta ekimen pribatuaren zerbitzu-emaila bihurtuta. Interes ekonomiko pribatuen arabera bideratzen dira donostiarrei zuzenean eragiten dieten erabaki garrantzitsuak, eta eredu horrek **ondorio gero eta kaltegarriagoak eragiten ditu herritarren gehiengoaren bizi-baldintzetan**:

- **Etxebizitza larrialdia:** erosketa eta alokairu prezioek gora egiten dute, eta ez zaie mugarik jartzen funts putreei edo merkatu turistikoari etxebizitzarekin espekulatzeko. Etxe-kaleratzeek jarraitzen dute eta belaunaldi gazteak eta ahalbide gutxiko bizilagunak Donostiatik kanporatuta izaten ari dira.
- **Hiriaren ekonomia eredu prekarizatzailea:** gain-esplotazio turistikoak langileen baldintzen okertzea ekarri du. Hiriaren egitura ekonomikoa desorekatu da, lan-baldintza ezegonkor eta kaskarrak ugarituz. Epe-motzeko etekinek soilik gidatuta, jasangarria ez den eredu baten alde egin da apustu.
- **Kalearen merkantilizazioa eta masifikazioa:** hiri-espazioaren kudeaketan interes komertzialei ematen zaie lehentasuna, zaintza, jolas eta kontsumora bideratzen ez diren harreman sozial jardueren kaltetan. Horrek zenbait auzotan bizitzea eta bizimodu duina garatzea eragozten du, kontsumorako eta aisialdirako gune soil bihurtzeko arriskuan direlarik. Halaber, Mozal Legearen eta Zibismoaren Ordenantzaren aplikazioaren ondorioz, protesta soziala zigortzen da.
- **Hiriaren elitizazioa:** egungo hiri-ereduak desberdinkeria sozialak areagotu eta aberastasuna esku gutxitan pilatzea dakar, kaltetuen gertatzen diren jendeen bazterketaren ondorio guztiekin. Fokuak aberastasunean eta luxuan jartzen diren bitartean, kale egoeran bizi diren donostiarrak edo bizitza duinaren mugan daudenak ezkutatu eta isilarazi egiten dira.
- **Hirigintza politika erasokorrak** azeleratu egin dira: horren lekuko ditugu Donostiako erdialdean metroaren zentzugabekeriako eraikuntza, auzo guztietan egitasmo urbanistiko polemikoen ugaritzea, hotel eta alojamendu turistikoak mugagabe hedatzea, merkatal-gune handi gehiago zabaltzea, eta udalerrian gero eta urriagoak diren ingurune naturalen nahiz baserri-lurren txikizioa dakarten Belartza Goiako makro-poligonoaren eta Antondegiko "olatu artifizialen" proiektuak, besteak beste, edozein garapen iraunkorren kontra.
- **Ondare arkitektonikoaren suntsiketa:** Astero eraikin historikoren bat suntsitzen edo husten da, higiezinen eta turismoaren presioa gero eta handiagoa delako. Donostia da Ondareari buzuzko

Nazioarteko Alerta bat duen hiri bakarra, Arte Ederren Jauregiaren eraispena salatzeko. Babes Plan Bereziaren gabeziak direla eta, hiri-irudiaren eta nortasun kolektiboaren gaineko inpaktu atzeraezina eragiten ari da.

- **Herritarren antolaketaren eta mugimenduen jazapena:** Mozal Legearen eta Zibismoaren Ordenantzaren aplikazioaren ondorioz, gero eta murriztagoak dira oinarrizko eskubide sozial, zibil eta politikoak Donostian. Jendarte mugimenduak zigortzen dira protesta soziala zapuzteko asmoz. Donostia Mozal Hiria bihurtu dute.

Udalak **Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra** berritzeko abiatu duen prozesua dela eta, orain arteko bidetik jarraituz gero, Donostiaren eta donostiarron etorkizuna epe luzera gehiago baldintzatzeko eta seriooki kaltetzeko arriskua ikusten dugu. Itxurazko parte hartze prozesuen gibelean, entzungor egiten diete indar ekonomiko nagusiekin bat ez datozen iritziak ematen dituzten eta bestelako hiri-eredua defendatzen duten donostiarrei.

Hori denagatik, hiria merkatu-interesen menpean jartzen duten politikei aurre egiteko eta **eredua herritarren eta auzoen beharrei begira eraldatzeko indarrak biltzea** premiazkoa dela nabarmentzen dugu. Hau da, bakoitzak bere auzoan eta jarduera eremuan lan egitearekin batera, auzi honetan kezka berdintsuak partekatzen ditugun talde eta pertsona guztien artean eragitea ezinbestekoa da gure ustez.

Elkarlan honen lehen urrats gisa, hurrengo asteetan hainbat ekimen bultzatuko ditugu eta **ekainaren 18n manifestaziorako deia egiten dugu, 18:00tan Araba Parketik abiatuta**, honako goiburupean:

DONOSTIA BERRESKURATU! HIRI-EREDUA ALDATU!

Abaraska etxebizitza kooperatiboa

Altza XXI herri ekimena

Amara Bai auzo elkarte

Ancora San Sebastián

AZPI Kultur Elkarte

Belartza 2 Gelditu

Bizilagunekin plataforma

CNT Gipuzkoa

Dendartean merkatarien elkarte

Donostiako Bilgune Feminista

Egia Bizirik auzo elkarte

Egiako Etxebizitza Sindikatua

Eguzki talde ekologista

Ehun mugimendua

ELA sindikatua

Ernai gazte antolakundea

Errausketaren aurkako mugimendua

ESK sindikatua

Groseko asanblada feminista

Haritzalde naturzaleen elkarte

Heriz plataforma

Herria kultur elkarte

Herripe auzo elkarte

Herritarren Harrera Sarea

Inquilinos de Azora

Intziri neska gazte taldea*

IZBE Intxaurreko Zaharreko Bizilagun Elkarte

Kaleratzeak Stop Desahucios Donostialdea

LAB sindikatua

Morlanstarrak auzo elkarte

Oficina de Derechos Sociales

Ondare SS elkarte

Parkea Bizirik elkarte

Parte Zaharrean Bizi auzo elkarte

Piztu Donostia

Satorralaia bizilagunen mugimendua

Uliako auzo elkarte